

Erakunde Esanguratsuak Berrikusteko eta Ebaluatzeko Gainbegiratze Prozesua (SREP)

Kutxabank Europako arrisku-profil onena duen laugarren erakundea da

- **Bi posizio lortu ditu, P2R gutxien eskatzen duen Europako laugarren bankua da eta Espainiako finantza-sistemako lehen postuan jarraitzen du**
- **Kutxabankek beti lortu du eskakizun-maila mantendu edo hobetzea azterketa hau egiten hasi zenetik**

2022ko otsailaren 10ean. Europako arrisku-profil onena duen **laugarren erakundea** da Kutxabank, **Erakunde Esanguratsuak Berrikusteko eta Ebaluatzeko Gainbegiratze Prozesuan** argitaratutako bankuen rankingaren arabera. Europako sailkapenean, erakundeak bi postu egin ditu gora 2020ko analisiaren aldean, eta Espainiako finantza-sistemaren buruan jarraitzen du.

Urteroko azterketak, ingelesezko siglen arabera SREP (Supervisory Review and Evaluation Process), erakunde bakoitzaren egoera erakusten du kapital-eskakizunei dagokienez, baita arrisku-politikari nola heltzen dion ere. Azterketa 2016. urtean egiten hasi zenetik, Kutxabankek beti lortu du eskakizuna mantendu edo hobetzea.

Azterketak **% 1,20ko** eskakizuna jartzen dio Kutxabanki, azken lau urteetako berbera, eta **Europako batez bestekoa baino hobea**, % 2,1etik **% 2,3ra** igo baita azken ekitaldian.

Kalkulu horri **2. zutabeko errekerimendua (P2R)** esaten zaio, eta banku bakoitzari banaka finkatzen zaio, bere arrisku potentzialak estaltzeko behar izan lezakeen kapital gehigarriaren arabera, agintaritza ikuskatzailearen kalkuluen arabera. Zenbat eta baxuagoa izan P2R horren helburua, orduan eta txikiagoa da identifikatutako arriskuak estaltzeko kapital gehigarria mantentzeko beharra, eta, beraz, profil hobea lortzen da.

Gainera, Kutxabankek **% 11,70etik** gorako **Gutzizko Kaudimen Ratioa** mantendu beharko du 2022ko martxoaren 1etik aurrera, eta **CET1** kalitate goreneko kapitalari dagokionez Europako Banku Zentralak eskatzen duen gutxieneko atalasea **% 7,675** izango da.

Bere **CET1 ratioa** eta Gutzizko Kaudimen Ratioa, phased-in bertsioan, **% 17,68koa** da. Hau da, ikuskatzaileak eskatutako CET1 **halako bi baino gehiago** du Kutxabankek. Adierazle horiek **% 17,2aren** gaineratik daude 'fully loaded' bertsioan.

Rk	Erakundea	2021 P2R 2022rako	
		Totala	gutxieneko CET1
1	C.R.H. - Caisse de Refinancement de l'Habitat	0,75%	0,42%
1	SFIL S.A.	0,75%	0,42%
3	Credito Emiliano Holding S.p.A.	1,00%	0,56%
4	Kutxabank, S.A.	1,20%	0,68%
5	HASPA Finanzholding	1,25%	0,70%
